

NORK EGINA	Araudia Betetzeko Batzordea	DATA	2023-05-12
NORK ONARTUA	Kontseilu Exekutiboa	DATA	2023-05-29

1.- Politikaren xedea

Erakundeak badaki langileen laguntza garrantzitsua dela Lantegi Batuak-en Araudia Betetzeko sistemaren barruan, eta informazio erabilgarria eskuratzeari lehentasunezkoa deritzo bai gobernu ona eta jokabide egokiak sustatzeko bai legearen arabera jokatzeko. Horregatik, legearen eta gure Kode Etikoaren eta Jokabide-kodearen aurkako gorabehera guztiak jakinarazteko barne-sistemak gaitzea balio garrantzitsua da.

Ildo horretan, Lantegi Batuak-ek legearen eta gure Kode Etikoaren eta Jokabide-kodearen aurkako edozein jokabide gaitzesten du. Hala, bere Kontseilu Exekutiboaren bitartez, Patronatuaren organo delegatua den aldetik, politika hau ezarri du, non Jakinarazpenetarako Barne-kanalaren printzipio orokorrak zehaztu diren.

Jakinarazpenetarako Barne-kanal honek arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa eta ustelkeriaren aurkako borroka arautzen dituen otsailaren 20ko 2/2023 Legeko eskakizunak ere betetzen ditu, erakundearekin zerikusia duten pertsona guztien eskura gorabeherak jakinarazteko beharrezko bideak jarrita, ikerketa-prozesu konfidentzial, arduratsu eta eraginkorra bermatuta, eta fede onez eta erantzukizunez egindako jakinarazpenetan informatzailearen defentsa une oro ziurtatuta.

2.- Jakinaraz daitezkeen jokabideak

Aplikatzekoa den legearen edo Lantegi Batuak-en Kode Etikoaren eta Jokabide-kodearen aurkako jokabide guztiak, hemen izaera mugatzailerik gabe aipatuak: iruzurrarekin eta ustelkeriarekin, kapital-zuriketarekin, jazarpenearekin, ongizate moralarekin eta aukera-berdintasunarekin, enpresa-sekretua ezagutaraztearekin, pertsonen intimitatearekin, osasun publikoaren edo ingurumenaren aurkako arriskuarekin, segurtasun eta osasunarekin, eta erakunde arriskuan jar dezaketen legez kanpoko beste jokabide batzuekin lotutako gaiak.

Jakinarazpen faltsuak edo asmo txarrekoak debekatuta daude, eta informatzaileari diziplina-jarduerak ezar lezikizkie.

3.- Jakinarazteko kanalak

Erakundeak gaitutako jakinarazpen-kanala telefonoz zein idatziz balia daiteke, baita aurrez aurre ere, informatzaileak hala eskatuz gero.

Gainera, politika honen aplikazio-eremuko gorabeherak, zuzeneko arduradunaren, begiralearen, arduradunen, pertsonen teknikarien, langileen ordezkarien eta prebentzio-ordezkarien bidez helaraziak, kanalean sartuko dira.

Kanala bai erakundearen barneko komunikazio-sistemen bidez bai webgunearen (www.lantegibatuk.eus) bidez dago eskuragarri.

Era berean, pertsonak Informatzailea Babesteko Agintaritzaren Independentetateak (A.A.I.) gaitutako sistema ere balia dezake gorabeherak jakinarazteko.

4.- Jakinarazpenetarako Barne-kanalaren printzipioak

Erabilgarritasuna.

Jakinarazpen bat egin nahi duen pertsona ororentzat erabilgarria, haren egoera pertsonal edo profesionala edozein izanda ere.

Konfidentzialtasuna.

Jakinarazpenetarako Barne-kanalak funtzionamendu seguru eta independentea bermatzen du, eta informatzailearen nortasunari eta jakinarazteko informazioari buruzko konfidentzialtasunik handiena ere bai; informazio hori ez zaio ez ikertuari ez beste inori jakinaraziko, haren baimenik gabe, jakinarazpenak fede onekoak izan direnean.

Errepresaliak debekatuta.

Politika honen arabera jakinarazpena egiten duen inork ezin izango du inolako errepresalia- edo lan- edo lanbide-alorreko kalte-motarik jasan jakinarazpenaren ondorioz.

Informazioa eskuragarri.

Ahal dela, jakinarazpen-egileari jakinarazpenaren kudeaketa-prozesuaren berri eman, bere jakinarazpenaren datuak eskuratzea ahalbidetu eta, beharrezkoa balitz, kudeatzailearekin komunikatzeko aukera eskainiko zaio.

Halaber, informatzaileak eta ikerketan parte hartzen ari den beste edozein pertsonak egoki deritzeten argudioak, alegazioak eta frogak aurkeztu ahal izatea bermatuko da.

Legezkoatasuna.

Ikerketetan, datuak, intimitatea, eta agintari judizial eta administratiboekiko harremana babesteko legezko betekizun guztiak errespetatuko dira.

5.- Jakinarazpena kudeatzeko prozesua

Kanalaren Kudeatzaileak.

Erakundeak Kide Anitzeko Organo bat du Jakinarazpenetarako Barne-kanalaren bidez helarazten diren jakinarazpenak kudeatzeko.

Kudeaketa egokirako pertsona egokienak izendatuta eta ez dela interes-gatazkarik egongo bermatuta, bai informatzailearekin bai ikerketa-prozesuan parte hartzen ari diren beste pertsona batzuekin.

Orobat, kudeaketa-prozesuan esku hartzen duten edo jakinarazpenaren berri duten pertsona guztiak behartuta daude ikerketaren fase guztietan eskuratzeko informazioaren konfidentzialtasun zorrotzari eustera.

Kudeaketa-prozesuaren faseak.

Jaso eta ebaluatu. Barne-kanalean jakinarazpena jasotakoan, arduradunak egokia den ala ez ebaluatuko du, eta, beharrezkoa izanez gero, ikerketa-talde independentea eratuko du jakinarazpena azter dezan.

Kudeatu. Ikerketa-taldeak beharrezko ebidentzia guztiak bilduko ditu (elkarrizketen, txostenen, erregistroen eta abarren bidez). Era berean, kautelazko neurriak aplikatu behar diren erabakiko da, pertsonentzat edo erakunderako arrisku oro saihesteko.

Ebatzi. Ikerketa-txostena aztertu eta ebazpen-txostena egingo da, non ondorioak eta bai erakunde barruan bai kanpoan dagozkion jarduera-proposamenak jasoko diren.

Erregistratu. Jakinarazpen guztiak erregistratuta geratuko dira, erakunde barruan edo, hala badagokio, 2/2023 Legean informazioa gordetzeko ezarritako epeak errespetatuta.